



1 | CEAR-Euskadiren teoria-koadernoak  
Asiloaren figurara eta  
errefuxiatuen egoerara hurbiltzeko  
proposamena



**CEAR-Euskadi**

Cristo 9B – 5º  
48007 Bilbao  
t 94 4248844  
f 94 4245938  
ceareuskadi@cear.es  
www.cear.es

Finantziatzaioa:



Edizio-urtea eta -lekua: Bilbo 2007an  
Euskarazko itzulpena: Bakun Itzulpen  
eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.  
Diseinu Grafikoa: Alfredo Requejo  
Lege-gordailua: BI-1373-07

**Material hauek hurrengo pertsonen landu dituzte:** Xabier Agirre, Xabier Aguiar, Itziar Caballero, Raquel Celis (Koord.), Silvia Díaz, Leire Lasa, Iñaki Ramírez de Olano eta Maider Zarraga.

**Proiektuaren koordinatzailea:** Fernando Zubizarreta



# Aurkibidea

Nortzuk dira errefuxiatuak? .....	4
Zer dio 1951ko Genevako Hitzarmenak? .....	6
Zertan datza asilo-prozedura? .....	7
Nola eragiten die errefuxiatuei ihesak eta egoera berriak? .....	9
Asilo-prozeduraren eskema .....	11
Oinarrizko bibliografia .....	12

**Errefuxiatuari Laguntzeko Euskadiko Batzordearen (CEAR-Euskadiren)** EGITEKOA honako hauek egoki erabili eta gara daitezzen sustatzea da: 1951ko Genevako Hitzarmena; errefuxiatuen, lekualdatutako en eta aberrigabeen babeserako nazioarteko arauak; giza eskubideak defendatu eta sustatzeko nazioarteko itunak. Hori guztia, etorkinen alde egiten da, betiere, osoko giza garapenaren bila.

## Nortzuk dira errefuxiatuak?

Genevako 1951ko Hitzarmena da babesa definitzen eta errefuxiatuen nazioarteko babesa bultzatzen duen nazioarteko tresna.

Arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzitako politikoen jazarria izateko beldur arrazoizkoa duen pertsona, bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoena eta herrialde horretako babesa lortu ezin duena edo beldur horienagatik lortu nahi ez duena.

✱ **Munduko errefuxiatuak:** Hiztegi hau argitaratu den unean, 9,2 milioi errefuxiatu daude munduan, mende laurdenean egon den kopururik baxuena, eta 25 milioi dira lekualdatuak.

Barne-gatazka armatuak ugaritu egin dira —eta estatu arteko gerrak gutxitu—, Iparraldeko gobernuak gero eta politika murriztaileagoa egiten dute eta gero eta zailagoa da herrialde seguru batera joatea. Horregatik, gutxitu egin da asilo-eskubidea izanik hori eskatzen dutenen kopurua, eta bertako lekualdatuen kopurua, berriz, hazi.

*Babes-erakundeak ematen duen babesa jasotzeko lehenengo pausoa herrialde seguru batera iristea da.*

Errefuxiatuak bere jatorriko herrialdean —aitortutako estatu-mugarik ez dute igaro— daudela esaten dugunean, herrialde barruko lekualdatutako ari gara, baina kontzeptu horrek beste egoera batzuei ere erreferentzia egiten die.

### Herrialde barruan lekualdatuak

Herrialde barruko lekualdatutako printzipio gidariak: Pertsonak lekualdatzera ez behartzeko eskubideak eta bermeak zehazten dituzte, bai eta lekualdatzera behartzean, aurreko herrialdera itzultzean, berriz asentatu eta birgizarteratzean babesa eta laguntza izateko eskubideak eta bermeak ere.

Printzipio horien arabera, herrialde barruko lekualdatuak dira etxetik edo ohiko bizilekutik alde egin edo ihes egin behar izan eta nazioartean aitortutako estatu-mugarik igaro ez duten pertsonak, betiere, hori egin behar izan badute gatazka armatuen ondorioz, indarkeria orokorreko egoeren ondorioz, giza eskubideen urraketen ondorioz, natura-hondamendien ondorioz edo gizakiek eragindako hondamendien ondorioz, edo adierazitako egoera horiei bazter egiteko.

Herrialde barruko lekualdatu ugari errefuxiatuek bizitako egoera berak bizi dituzte, eta, ondorioz, beren nazionalitateko herrialdetik kanpo badaude, asiloa eska dezakete. Herrialde barruan lekualdatutako beste pertsona batzuek gerra-gatazketatik edo indarkeria orokortutako egoeretatik ihes egiten dute, baina ez dute izaten, errefuxiatuen moduan, jazarriak daudela adierazten duen nahikoa zantzurik.

Agerikoa da munduan gero eta barne-gatazka gehiago daudela eta Iparraldeko gobernuak presioa egiten dutela errefuxiatuen fluxuak murrizteko; horrenbestez, herrialde barruan lekualdatutako pertsonen kopurua handitu egin da.

✱ **Herrialde barruan lekualdatutako pertsonak, munduan:** 25 milioi pertsonak ihes egin behar izan dute haien etxetatik eta beren herrialdearen mugen

barruan bizi dira. Afrika da gehien erasandako herrialdea; 13 milioi baino gehiago dira lekualdatuta bizirauten duten pertsonak. Ia erdia (6 milioi) Sudanen dago. Herrialde barruan lekualdatutako 13 milioi pertsonak ez dute laguntza humanitarioa behar bezala jasotzeko aukerarik, eta 5 milioi inolako laguntzarik gabe bizi dira. Lekualdatutako 14 milioi pertsonak dute indarke-riagatik hiltzeko arriskua.

## Eta aberrigabeak?

Aberrigabekoen estatutuari buruzko Hitzarmena (New Yorke egindakoa, 1954an) eta aberrigabetasun-kasuak murrizteko Hitzarmena (1961ekoa) dira aberrigabetasuna definitzen eta aberrigabeen babesa sustatzen duten nazioarteko tresnak.

Herritartasunik ez duen pertsonari —herritartzat aitortzen duen estaturik ez duelako— aberrigabe deritza. Hori da inoiz herritartasunik izan ez duten pertsonen —jaiotakoan ez ziotelako herritartasunik esleitu— eta herritartasuna galdu eta besterik eskuratu ez duten pertsonen egoera. Estatuaren desegiteek sortzen dituzte, gehienetan, aberririk gabeko pertsonak, baina ez da hori bide bakarra, legedi akastunek edo ezkontza eta jaiotza erregistroak arautzen dituzten prozedurek ere pertsona ugari utz ditzakete herritartasunik gabe.

Zenbaitetan, gobernuek emandako legeek diskriminatu egiten dituzten biztanle-talde batzuk, eta, beste batzuetan, ez dute etnia jakin batzuen herritartasuna aitortu nahi izaten.

### ✳ **Ez da gauza bera atzerrian paperik gabe egotea eta aberrigabezia-egoera.**

Aberririk gabeko pertsonak erabat babesgabe daude. Herritartasunik, pertsonari identitate bat emateaz gain, eskubide zibil eta politiko guztiak erabiltzeko aukera ematen du.

## Genero-ezberdintasunak

Genero-ezberdintasunaren ondorioz, emakumezkoek beste eskualde edo herrialde batzuetara ihes egitean ez dute gizonen baldintza berdinetan egiten; izan ere, bidean topatzen dituzten armada etsaiko kideek, agintariek eta abarrek beraietaz fisikoki eta sexualki abusa dezakete.

Bortxaketa gerra-arma gisa erabiltzen da, eta horren helburua, biktimak, horien familiak eta komunitateak umiliatzea da. Zauritutako edo eraildako pertsonak heroizatzen edo biktimatzen jotzen dira; bortxatutako emakumeak, ordea, markatuta geratzen dira.

### ✳ **Emakumeak dira behartutako migrazioek eragindako kolektibo handiena.**

Errefuxiatuen eta lekualdatuen % 80 haurrak eta emakumeak dira.

## Errefuxiatu-kanpamendu batean bizitzea

Gatazka bat sortzen bada edo indarkeria areagotzen bada, biktimek etxe-inguruan bilatu ohi dute babeslekua, lehenbailehen bueltatzeko itxaropena izaten baitute. Behin-behineko kanpamendu horiek, maiz, GKE-en eta Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi-komisarioaren edo beste agentzia humanitarioen laguntzaz, asentamendu antolatu bihurtzen dira. Aukerarik badago, plangintza bat egiten da kanpamenduak nola egin erabakitzeko, baina gune egokiak eta seguruak aurkitzeko aukerak —batik bat, milaka pertsona hartu behar badituzte— oso urriak izaten dira beti.

Sarritan, beren herrialdean bertan lekualdatutako pertsonak hartzeko egiten dira errefuxiatu-kanpamenduak; beraz, errefuxiatu-kanpamendu deitzen baditugu ere, aintzat hartu behar dugu beren herrialdean lekualdatutako behartutako pertsonak ere sartzen direla bertan.

Sarritan, ezinbestekoa izaten da kanpo-laguntza ura, janaria eta erregaia lortzeko eta banatzeko, aterpeak eraikitzeko, hezkuntza-

beharrei aurre egiteko eta osasun-laguntza bermatzeko. Gatazkak horren gertu izanik, zailagoa da gainera kanpamendura heldu eta hori hornitzea.

Usu, gerran dagoen herrialdean bertan jarri ohi dira kanpamenduak, eta, beste herrialderen batean jartzen badira, maiz herrialde horietan gatazka zibilak bizi ohi dituzte, edo gobernuak giza eskubideak urratzen dituzte. Askotan, jatorriko herrialdeetako hierarkia eta horrek dakartzan abusuak errepikatzen dira. Horrela, errefuxiatuek gatazketan aritzen diren alderdien presioak jasaten dituzte (alderdi horiek kanpamenduetan sartzen baitira).

## Zer dio 1951ko Genevako Hitzarmenak?

1951ko Genevako Hitzarmena (Errefuxiatuen estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena) eta 1967ko New York-eko Protokoloa errefuxiatuen babeserako nazioarteko erregimenaren oinarritzko idazkiak dira. Munduko bi gerren ondorioak arintzeko Nazio Batuek sortu zituzten bi tresnetako bat da, eta mundu osoa da bere aplikazio-eremua. Hauek dira Hitzarmen horren bi ekarpen nagusiak: Errefuxiatuaren definizioa\* eta ez-itzultzeko printzipioa (non-refoulement)

- \* Ez-itzultzeko printzipioa (non-refoulement): Nazioarteko zuzenbideak debekatu egiten die estatuei pertsona bat herrialde batera kanporatzea edo itzultzea, baldin eta herrialde horretan bere bizitza edo askatasuna mehatxupean badaude, edo torturak, tratu krudelak edo umiliagarriak pairatzeko edo oinarritzko giza eskubideak larri urratzeko arriskua badu.

*Hitzarmenak debekatu egiten die hura izenpetu duten estatuei, Hitzarmenaren xedapenak aplikatzeko arrazaren, erlijioaren edo jatorriko herrialdearen arabera diskriminazioak egitea.*

**Espainia** 1978an atxiki zitzaion Errefuxiatuen estatutuari buruzko Genevako Hitzarmenari. Errefuxiatu hitzaren definizioa —

Hitzarmenean ezarria— Espainian asilo-eskubidea lortzeko oinarria da, Asilo-legearen arabera,. Espainiara iristen diren askok, nazioarteko itunek errefuxiatu izateko biltzen dituzten baldintza guztiak betetzen dituzte, baina Espainiako Administrazioaren politika murriztaileak direla eta, ez dute Asilo-estatutuak ematen duen babesa.

### \* Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.

14.1 artikulua. Jazarritako pertsona orok du asiloa bilatzeko eskubidea eta edozein herrialdetan asiloa lortzekoa.

## Asilo-eskubidea Espainian

Barne Ministerioari dagokio Estatura iristen diren errefuxiatuak babestea.

### Zer gertatzen da errefuxiatu bat Espainiara babes bila datorenean?

Errefuxiatuek herrialdearen mugetan eska dezakete asiloa:

- Aireportuetan (Kolonbiatik ihes egiten duten errefuxiatu askok Barajasen eskatzen dute asiloa).
- Portuetan (ezkutuko bidaiari moduan ihes egin dutenean).
- Lehor-mugetan (Ceutako mugan, adibidez).

Muga igaro eta herrialde barruan dagoenean, errefuxiatuak honako leku hauetan eska dezake asiloa:

- Asilo eta Babeserako Bulegoa (OAR). Barne Ministerioaren esku dago eta Madrilen du egoitza, aurrerago ikusiko dugunez.
- Probintziako polizia-etxeetan.
- Asilo-eskaerak egin daitezke, halaber, kanporatzearen dauden atzerriarrentzako zentroetan —eskatzailea kanporatze-espeditentea ebatzi zain edo kanporatu zain badago—, eta espetxeetan.

# Zertan datza asilo-prozedura?

Espainiako asilo-prozedura Genevako 1951ko Hitzarmenean azaltzen den errefuxiatuaren definizioan oinarrituta dago, eta prozedura zuzentzen duten arauak Asilo\* Legean eta bere erregelamenduan jasota daude.

## Prozesua era honetara egituratuta dago:

- Errefuxiatuak asilo-eskaera egiten du, eta bertan bere jatorriko herrialdetik alde egitera behartu duen jazarpena zein ekintzetan oinarritzen den adieraziko du. Asilo-eskaera horretarako antolatutako lekuetan egiten da, oraintsu aipatu ditugunetan.

- Asilo eta Babeserako Bulegoak (OAREk) —Barne Ministerioari esleitua— jasotzen ditu asilo-eskaerak eta honako hau egiten du:

- **Tramitera ez onartzeko prozedura:** tramitazioa zein eskaerak 'merezi' duen eta zeinek ez erabakitzean datza.

### • Ez onartzea.

OAREk uste du eskaera sakon aztertzeak ez duela 'merezi' eta, beraz, baztertu egiten du; hau da, ez du onartzen.

### • Onartzea.

OAREk asilo-eskaera aztertzea onartzen duenean:

- OAREk espedientea aztertzen du, frogak ikertzen ditu eta asiloa ematearen aldeko edo kontrako txostena egiten du. Asilo eta Babeseko Ministro arteko Batzordeari (CIARi) ematen zaizkio espedientea eta txostena, hark iritzia eman dezan. Ondoren, CIAREk ebazpen-proposamena bidaltzen dio Barne Ministerioari.

- **Ebazpena:** Barne Ministerioari dagokio ebazpena ematea.

- \* Eskaera egin zenetik bi hilabete igaro direnean (72 ordu

\* Espainia. Martxoaren 26ko 5/1984 Legea, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituen, eta maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak aldatutakoa. 1994-05-23ko BOE.

mugan), eta behin tramitera onartuz gero, Aterpe eta Babeserako Bulegoak (OAREk) errefuxiatuari 'TXARTEL HORIA' ematen dio. Eskaera egin eta sei hilabetera, txartel horrekin lan egin ahal izango du.

## Zer ondorio du errefuxiatuentzat tramitera ez onartzeko prozedurak?

Espanian, urtero ez dira tramitera onartzen eskaeren % 60; hau da, asilo-eskaera gehienak baztertu egiten dira, sakon ikertu gabe. Teorian, eskaera bakoitzaren alderdi formalak aztertze prozedura da, eta ez da inoiz edukia aztertzen, baina praktikan, oztopo gaindiezina da errefuxiatu gehienentzat, eskaerak ikertu baino lehen baztertzen baitituzte.

### a Lurraldean tramitera ez onartzeko prozedura:

Lurraldean onartzean, eskatzaileak Espainiako lurraldean egoteko baimena du espedientearen izapideak egiten diren bitartean (tarte horretan erabakiko dute asiloa emango dioten ala ez).

**Lurraldean onartu ezean, derrigorrez irteteko agindua emango diote, baldin eta ez badiote Babes Osagarriko Estatutua ematen** —asilo-prozedurara sartu ordez—. Hamabost eguneko epea izango du eskatzaileak derrigorrez irteteko.

- \* **ACNURek tramitera ez onartzeko prozeduran duen egitekoa:** Asilo-eskaera jaso ondoren, OAREk berehala jakinarazi behar dio Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi-komisarioari (ACNURi), horrek eskaera onartzearen aldeko edo kontrako txostena egin dezan. ACNURen jarrera ez da loteslea.

### b Mugan tramitera ez onartzeko prozedura:

**Mugako asilo-eskaerak tramitera ez onartzeko prozedura:** 72 orduko epean ebatzi beharko da mugan aurkeztutako asilo-eskaerak tramitera onartuko diren ala ez.



- Tramitera onartzen bada, eskatzaileak Espainiako lurraldean sartzeko eta egoteko baimena du espedientearen izapideak egiten diren bitartean (tarte horretan erabakiko dute asiloa emango dioten ala ez).
- Tramitera onartzen ez bada, 24 orduko bigarren epe bat irekiko da eskaera berriz azter dadin eskatzeko. Erantzunak ezezkoa izaten jarraitzen badu, errefuxiatuak ezin izango du herrialdean sartu. Mugan onartzen ez bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke (baina horrek ere ez du lurraldean sartzea ekartzen).

Mugan ez onartzean, ez-itzultzeko printzipioa urratzen da.

- \* **ACNUrek oso egiteko garrantzitsua du mugan:** ACNUrek aldeko txostena ematen badu berrazterketan, nahiz eta azterketa hori baztertu, baldin eta eskatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen badu, lurraldean sartzeko utziko zaio.

Asilo-eskaera tramitera onartzen ez bada, errefuxiatuak ezin izaten dira iritsi beraien giza eskubideak babesteko prozedurara.

## Emakume errefuxiatuak asiloa eskatzean aurkitzen dituzten zailtasun espeziifikoak

Genero-diskriminazioaren ondorioz, asiloa eskatzen duten emakumeek oso egoera gogorak bizi behar izaten dituzte. Sexu-erasoak jasan badituzte, erasoek eragindako lotsaren eta umilazioaren ondorioz, zaila egiten zaie horien berri ematea. Gainera, emakume askori, beren ohitura kulturalak eta izandako bizipenak direla-eta, zaila egiten zaie gizonekin modu irekian hitz egitea, eta litekeena da hori behin baino gehiagotan egin behar izatea harrera-herrialdera iritsi bezain laster, haien asilo-eskaerak tramitzatzeko.

Senarrarekin edo bikotekidearekin iristen badira, litekeena da, haren aurrean galderak eginez gero, bizi izan dituen zenbait egoera azaltzeko

gai ez izatea. Gainera, ez dute beti jakiten zer-nolako jarduerak egiten zituen beren bikoteak jatorriko herrialdean; eta horixe bera gertatzen da ihes egitera behartu dituen jazarpenaren sortzailea jarduera horiek izanda ere.

## Zer ekartzen du Estatuak asiloa eskatu duen pertsonari errefuxiatu-izaera aitortzeko?

**Asilo-estatutuaren** bidez errefuxiatu-izaera **aitortuta duten** pertsonak ez-bidaltze printzipioaren babesa izango dute izango dute, eta Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimena izango dute. Halaber, nortasun- eta bidaia-agiriak emango zaizkie—beharrezkoa denean— eta araz erabakitzen den laguntza soziala eta ekonomikoa emango zaie.

## Hala ere, ohikoena Estatuak asilo-babesa eta abar ukatzea da.

- \* Urtero, eskatzaileen % 90i baino gehiagori ukatzen die asilo-estatutua Espainiako Gobernuko Barne Ministerioak.

Honela interpretatzen du Espainiako gobernuak Genevako 1951ko Hitzarmena:

Pertsona bati Asilo-estatutua eman eta errefuxiatutzat aitortzeko, Espainiako gobernuak, sarritan, interpretazio murriztaile bat egiten du, eta honako hauek eskatzen ditu:

- 1 Jazarpena indibiduala izatea. Zenbaitetan ez da nahikoa izaten gutxiengo etnikoko edo gizarte-talde jakin batekoa izatea, talde horietako kideak oso jazarpen larria pairatzen ari direla edo erail egiten dituztela jakin arren: jazarri egin dutela frogatu behar izaten du asilo-eskatzaileak.
- 2 Jazarpena jatorriko herrialdeko agintariek (estatu-agenteeek) sustatua izatea.
- 3 Legeak dio nahikoa jazarria izatearen zantzuak izatea —jazarleak ez du inoiz agerian jartzatzen—, baina, praktikan, jazarpenaren froga osoa edo ia osoa eskatzen da.

Espainiako Estatuak pertsona bati errefuxiatu-izaera ez aitortzea erabakitzen duenean —bere ustez, ez dituelako 1951ko Genevako Hitzarmeneko baldintzak betetzen—, Asilo-estatutuak ematen duen babesa ukatzen zaio. Onartu ezean, derrigorrez irteteko agindua\* jakinaraziko diote, baldin eta ez badiote Babes Osagarriko Estatutua ematen.

\* **Errefuxiatu-izaera adierazpidezkoa da, ez erabatekoa;** hau da, pertsonak bizi izan dutenagatik dira errefuxiatu eta ez izaera hori aitortu zaielako. Asilo-eskubidearen printzipio orokor bat da hori.

### Babes osagarri edo subsidiarioko estatutua

Asilo Legearen 17.2 artikulua (eta Araudiko 31.3 artikulua) ezarritakoaren arabera, Espainian geratzeko baimena eman ahal izango zaie asilo-eskaera ukatu edo tramitera onartu ez zaien pertsonari, baldin eta arrazoi humanitarioak edo interes publikoko arrazoiak badaude lurraldean geratzeko, bereziki pertsona horiek gatazka politiko, etniko edo erlijioso larriengatik utzi behar izan badute jatorriko herrialdea. Jatorriko herrialdeko egoera hori bada, baina eskatzaileak ez baditu betetzen Asilo Estatutua lortzeko Genevako 1951ko Hitzarmenak ezarritako baldintzak —Asilo eta Babeseko Ministro arteko Batzordearen (CIARen) arabera—, Barne Ministerioak ordezkoko babes hau eman ahal izango dio. Arrazoi humanitarioengatik lurraldean jarraitzea deiturikoa da.

Egoera humanitario horregatik geratzen 'uzten' zaien pertsonari Babes Osagarriko Estatutua edo Estatutu Humanitarioa —'17.2' bezala ezagutzen dena— ematen zaie.

#### EI 17.2

Estatutuak egoitza-baimen bat eta lan-baimen bat ematen ditu. Halaber, familia berriz elkartzea ahalbidetzen du, baina ez du argi aitortzen ezbidaltze printzipioa.

Genevako Hitzarmenaren interpretazio gero eta murriztagoa egiten ari dira iparraldeko estatuak, eta, ondorioz, asiloa krisi sakon batean murgiltzen ari da: estatuak lehen baino jende gutxiagori ematen diote babesa, eta ematen duten babesa asilo-estatutuak emandakoa baino ahulagoa izan ohi da, aldi baterakoa.

## Nola eragiten die errefuxiatuei ihesak eta egoera berriak?

Hainbat egoerek —esaterako, sexu-indarkeriak edo torturek, hilketek, gerra-gatazkek— trauma-ondoko estresa esaten zaien sintoma fisikoen eta psikologikoen koadroa eragin dezakete jazarpenetik ihesi haiek bizi izan dituzten pertsonengan. Gertakari hunkigarri bat edo gehiago bizi izateagatik sortzen da trauma-ondoko estresa, eta estres hori bizi duten pertsonak, desanparo sentimendu handia sentitzeaz gain, aldatuta ikusten dute mundua: galdu egiten dute gizakiarenganako konfiantza eta ezin zaurituzkoak izatearen ilusia pertsonari bizitzen laguntzen diena.

Trauma-ondoko estresetik berreskuratzeko, erabakigarria izango da zer testuingurutan bizi diren. Lekualdatutako pertsona gehienak eta errefuxiatu ugari hegoaldeko herrialdeetan bizi dira, oso baldintza gogorretan: batzuk errefuxiatu-kanpamendutan bizi dira eta beste batzuk, berriz, hiri handietako auzo pobreetan.


Iparraldeko herrialderen batera —esaterako, Espainiara— iritsita, jazarriak direla auzitan jartzen duten asilo-politikei aurre egin behar izaten diete errefuxiatuek, eta, gehienetan, ukatu egiten zaie behar duten babesa. Gainera, zailtasun handiak izaten dituzte gizarte-baliabideak, lana eta etxebizitza duin bat lortzeko. Zenbat eta handiagoak izan integrazio-aukerak, orduan eta handiagoak izango dira trauma-ondoko estresa sendatzeko aukerak.

Trauma-ondoko estresari gauza garrantzitsu asko galdu izanagatik lekuz aldatu behar izan duten horien **migrazio-dolua** gehitu behar diogu. Honako hauek dira galdutakoak: familia, lagunak, hizkuntza, kultura, lurrak (klima, paisaia, koloreak), estatus soziala eta abar.

Errefuxiatuentzat utzi dutenarengatik dolu migratorioa handitu egiten da, sarritan, beren pertsona maiteak hil egin direla jakiten dutenean eta ziur ez dakitenean bere herrialdera itzultzeko

aukerarik izango duten. Horiek horrela, galerak osatzeko aukera zaila izaten da.

Dolu horren sintomak depresioaren antzekoak izaten dira: erruduntasun- eta tristura-sentimenduak. Dolua ohiko ondorioa da migrazio-prozesuetan; bakoitzak berea pairatuko du, galdu duenaren garrantziaren eta herrialde hartzailean aurkitzen duten testuinguruaren arabera.





## Dinarrizko bibliografia:

1. Celis, Raquel. Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordearen (CEAR-Euskadiren) Asilo-hiztegia. Bilbora: CEAR-Euskadi, 2006.
2. Genevako Hitzarmena: Genevako 1951ko Hitzarmena: Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmena, Errefuxiatuen eta Aberrigabeen estatutuari buruzko Botereguztidunen Konferentziaren baitan (Nazio Batuak) izenpetua, 1951ko uztailaren 28an. Konferentzia hori Nazio Batuetako Batzar Orokorrak deitu zuen 429 (V) ebazpenaren bidez, 1950eko abenduaren 14an. Indarrean sartzea. 1954ko apirilaren 22a, 43. artikulua arabera.
3. Aberrigabeen estatutuari buruzko Hitzarmena, 1954ko irailaren 28an egina ahalduen Hitzarmen batean. Hitzarmen hori Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak deitu zuen 526 A (XVII) ebazpenaren bidez, 1954ko apirilaren 26an. 1960ko ekainaren 6a, 39. artikulua arabera.
4. Espainia. Martxoaren 26ko 5/1984 Legea, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituena, eta maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak aldatutakoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1994ko maiatzaren 23a.
5. Espainia. Azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa; atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei nahiz gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoa aldatutakoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2000ko abenduaren 23a.
6. Espainia. Otsailaren 10eko 203/1995 Errege Dekretua, martxoaren 26ko 5/1984 Legearen —asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituena, eta maiatzaren 26ko 5/1984 Legeak aldatutakoa— aplikazio-erregelamendua onartzen duena .
7. Espainia. Abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretua, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei buruzkoa eta horien gizarteratzeari buruzkoa den urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko erregelamendua onartzen duena.
8. Global IDP Project. Norwegian Refugee Council. Internal Displacement: Global Overview of Trends and Developments in 2004. Geneva (Switzerland): Jens-Hagen Eschenbächer. (2005eko martxo) .uak
9. New Yorkeko protokoloa: Errefuxiatuen estatutuari buruzko protokoloa. Protokolo hori jaso eta onartu zuten Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 1966ko azaroaren 18ko 1186 (XLI) ebazpenean eta Batzar Nagusiak 1966ko abenduaren 16ko 2198 (XXI) ebazpenean. Ebazpen horretan bertan, Batzarrak idazkari nagusiari eskatu zion protokoloaren testua bidal diezaiela V. artikuluan aipatzen ziren estatuei, protokolora gehitu ahal izateko. Indarrean sartzea: 1967ko urriaren 4a, VIII. artikulua betez. Nazio Batuak
10. Pérez de Armiño, Karlos (zuz.). Ekintza Humanitario eta Garapenerako Lankidetzaren Hiztegia. Hegoa. Ekonomia-zientzien Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bartzelona: Icaria Editorial, s.a., 2000. ISBN: 84-7426-502-9.
11. Pérez-Sales, Pau. Trauma y Resistencia. Programa de Autoformación. Psicoterapia de Respuestas Traumáticas. 1. Bol. Madril. You & Us, s.a., 2003. ISBN: 84-96015-16-5
12. Herrialde barruan lekualdaketan printzipio gidariak. 1998ko otsailaren 11. Giza Eskubideen Batzordeak 2002/56 ebazpenaren bitartez jaso zituen printzipio gidari horiek. Nazio Batuak.
13. Valiente Ots, Mauricio (koord.). Espainiako Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordearen (CEARen) Zerbitzu Juridikoa. Espainiako Asilo-prozeduren eskuliburua. Madril: CEAR eta Valiente Ots, Mauricioen (koordinatzailearen) Ministerioa.